

» DISKOA

## Goxotasun bortitza



Iker Barandiaran  
@IkerBarandiara

Badira hiruzpalau urte *La Furia* gerra-izena duen rap abeslaria ezagutu nuena. Gerora jakin nuen abortuaren legearekin lotuta Alfonso Alonsori zuzendutako kantu ausart batek ezagun egin zuela zenbait forotan. Emakume izaera eta –ondorioz– borroka grina erraie-tatik dario. Hala, aspaldi erabaki zuen rap-a ibiliko zuela emakumeen ahalduntzerako instrumentu gisa eta, jakina, barruak askatzeko ere. Ez hori bakarrik: bere kanta abestu eta idazteaz gain, emakumeak ahalduntzeko taillerak antolatu eta gidatzen ditu, eta emaitzak begi bistan daude; edo oraindik ikusi ez badituzu, egon adi!

*Furia*-k betidanik idatzi izan du eta hori igartzen da disko honetako kantetan –nahiz eta ez dituen hitzak idatziz jaso–. Zenbait tartetan hip-hoparen marka den kale hizkuntza zuzen eta gordina, amorratua erabiltzen badu ere, baditu bestelako ñabardura gehiago, erraie-tako poesia mingotetik hain zuzen ere.

Aspaldidanik idatzi arren, denbora eman zuen Nafarroako hegoaldean agertokietara igotzen hasi arte eta ausardiaz beteta egin zuen aurrera. Poli-ki-poliki, hutsetik hasita, bere bidea egiten dihardu. 2013an *No hay clemencia* diskoa ka-

### Vendaval LA FURIA

Autoekoizpena, 2017.

Nerea Loron rap abeslaria da  
*La Furia* (Cascante, 1983).

ARGAZKIA: ITZIAR BASTARRIKA.



leratu zuen eta bertan oso agerian utzi zuen bere motxilan rap-az gain, kulturaliki jasotako bestelako eraginak, inoiz ezkutatu nahi izan ez dituenak, ere oso presente direla: koplak, jotak eta beste.

Disko berri honetan, baina, elektronikak –xumeak– tarte bat hartu du. *Vendaval* hau bere baitan anitza, bortitza, goxoa, xuxurlaria eta amorrazioz beteata bada. *Vendaval* saetak irekitzen du lana eta horri jarraiki kale giroko rap indartsua dator. *Lo llamáis cielo*-k mistizismoa ezandarazten du goxo errezeituz. *Brujas del Norte*-k errezeitzetik eta elektronikatik du. *Cachorras* ere zuzena da, erabat urbanoa, hasperen eta scratchekin. *Mi silencio*-k souletik edaten du, ederra da. *Aunque duela* kutsu flamenko eta arabiar handia duen poesia da. *Llegando a casa* dark leunaren jantzia duen hip-hopa. *Quisiera vivir* panpinen doinu kaxak ezkutatzeko duen arnasa. *El diccionario de la mala vida*-k elektronika minimalista dauka lagun. Eta, azkenik, *Necesito rap*-ek asko dauka abestetik. ■